

8. ARTIKULUA.— IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

1.— Hauek dira irakasleek merezimendu-lehiaketan parte hartzeko bete beharreko baldintzak:

- a) Gutxienez bost urteko antzintasuna izatea irakaskuntzako funtzio publikoan karrerako funtzionario gisa.
- b) Gutxienez bost urtez aritu izana karrerako funtzionario gisa ikastetxeak eskaintzen dituen irakaskuntzetako batean.
- c) Euskarazko hizkuntza-gaitasuna egiaztatuta izatea, irakasle funtzionarioen hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko unean indarrean dagoen araudiaren arabera.
- d) 10. artikuluan jasotako alderdiak jasoko dituen zuzendaritza-proiektu bat aurkeztea.

2.— Haur Hezkuntzako ikastetxe espezifikoetan, Lehen Hezkuntzako ikastetxe osatugabeetan, zortzi unitate baino gutxiagoko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Arte-irakaskuntza profesionalean, Kirol-irakaskuntzetan, Hizkuntzen irakaskuntzetako ikastetxeetan edo zortzi irakasle baino gutxiagoko Helduentzako irakaskuntzetan, merezimendu-lehiaketan parte hartzeko edozein irakasle bete beharko dituen baldintzak honako hauek izango dira:

- a) Gutxienez urtebeteko antzintasuna izatea irakaskuntzako funtzio publikoan karrerako funtzionario gisa.
- b) Gutxienez urtebetez aritu izana karrerako funtzionario gisa ikastetxeak eskaintzen dituen irakaskuntzetako batean.
- c) Euskarazko hizkuntza-gaitasuna egiaztatuta izatea, irakasle funtzionarioen hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko unean indarrean dagoen araudiaren arabera.
- d) 10. artikuluan jasotako alderdiak jasoko dituen zuzendaritza-proiektu bat aurkeztea.

3.— Hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren lurralde-ordezkaritzeari dagokie, agindu bidez ezarritakoaren arabera, izangaiak baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea eta onartutako eta baztertutako hautagai-zerrendak ebaztea. Kasu horretan, kanporatzearen arrazoiak adieraziko dira, bai eta behin-behineko ebazpenaren aurka aurkez daitezkeen alegazioak ebaztea ere. Alegazio horiek behin betiko ebazpenaren bidez ebatziko dira. Zuzendaritza-proiektuari buruzko betebeharren kasuan, organo horri dagokio soilik proiektua aurkeztu dela egiaztatzea, eta, hala badagokio, haren akats formalak zuzentzeko eskatzea, inola ere ez edukiak aldatu, ezabatu edo gehitzeko eskatzea.